

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Eguneko arretarako landa zentroa arautzeko erregelamenduaren hasierako onarpena**

Udalbatzak 2021eko martxoaren 29an, egin zuen Osoko Bilkuran hasierako onarpena eman zion Laudioko biztanleentzako eguneko arretarako landa zentroaren prestazioa arautzea helburu duen araudiari.

Erabaki hori jendaurrean jarriko da eta interesdunei entzunaldia emango zaie, bai ALHAOn bai udaletxe honetako ediktu-oholean, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita, egoki iritzitako iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erakustaldi eta azalpen-aldi hori amaitutakoan, Osoko Bilkurak ebatziko du edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo ekarpen, hala badagokio, testuari behin betiko onespina emateko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko. Hitzarmena osorik argitaratzen denetik hogeita hamar egun baliodun igaro ondoren jarriko da indarrean, TAOLen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez. Alegaziorik, erreklamaziorik, iradokizunik edo ekarpenik aurkezten ez bada, une horretara arte behin-behinekoa izan den testua behin betikotzat joko da, Osoko Bilkuraren beste erabakirik behar izan gabe. Nolanahi ere, ALHAOn argitaratuko da osorik, eta indarrean jarriko da harik eta hamabost egun baliodun igaro arte, aipatutako argitalpena egiten denetik zenbatzen hasita.

Laudio, 2021eko apirilaren 9a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**